

BALIO PROPOSAMENA:

Kanpora ateratzeko gai ez diren adineko jendeari, bizitzan zehar joan ez diren lekuetara joateko aukera ematen dio. Proiektu berri bat denez, ez dago antzekorik. Gainera, pertsonaren arabera pertsonalizatu daiteke, izan ere, bakoitzak nahi duen lekuetara bidaiatu dezake. Alde batetik, adineko jendearen arriskua murrizten da, ez baitira dauden lekutik mugitu behar. Bestalde, erabilera errazekoa da, eta zentroko arduradunek ez lukete arazorik edukiko hauei erabilera ematerakoan. Horrez gain, langileen lana erraztu dezake, izan ere, behin betaurreko birtualak jartzean, bakarrik eta lasai egon daitezke aiton-amona hauek, lekutik ez direlako mugitzen.

Idea honekin bat dator zahar etxe bakoitzean gutxienez pare bat betaurreko birtual egotea, guztien esku egon dadin.